

TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN:

EIBAR

2016/06/16

Kokalekua: Portalea, Kultur etxea (Eibar)

Iraupena: 2 ordu eta 30 minutu

Parte hartzaileak

Izena	Udalerrria	Elkarte/Erakunde/... /
Maria Eugenia Garcia	Eibar	
Inma Alberdi Zubia	Eibar	
Ana Telleria	Eibar	
Aloña Urteaga	Beasain	Elgoibarko Udala (Hirigintza teknikaria)
Máximo Ruiz Fuente	Ermua	
Iker Aldazabal	Soraluze	Soraluzeko Udala
Nerea Mendicute	Eibar	
Roke Akizu	Soraluze	Debabarrenako EHBildu
Silvestre Berasategui	Mallabia	Arquitecto
Igor Agirre	Mallabia	Mallabiako Udala

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Izaskun Iriarte Irureta	Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
José Ramón Varela Balenciaga	Gipuzkoako Lurralde Antolakuntzako Arduraduna

Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Aguirre Such	Paisaje Transversal
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Leire Zuazo Urkaregi	Inguru
Estibaliz Nanclares Medrano	Inguru

Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Izaskun Iriarte Iruretak, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariak eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitarteko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-parte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrerako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jon Agirre Suçek.

Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Iñakik, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
 - o Paisaia
 - o Ingurune fisikoaren antolamendua
 - o Klima aldaketa
 - o Babestutako Naturguneak
 - o Korredore ekologikoak
 - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
 - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
 - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
 - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
 - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
 - o Hiriz hazkundera
 - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
 - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
 - o Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - o Bide-mugikortasuna
 - o Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
 - o Talde mugikortasun multimodala

- Eredu logistikoa
- Ura
- Energia
- Zeharkako alderdiak
 - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
 - Lurraldeen arteko harremana
 - Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Leirek:

- Talde-lana (75 minutu): Asistentzia teknikoaren argibideen arabera, parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasagarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Horretarako bi panel ditu talde bakoitzak, landutako ideiak adieraziko dituztena (post it bat, ideia bat) eta landuko duten gaiari buruz oinarritzko dokumentuan datozen ideiak adierazten direna. Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

1.1. Paisaia

1.1.1. LAGen erabilera matrizea egokitu, zabaldu, beste erabilera batzuk jaso ditzan eta horrela eredia eraginkorragoa izan dadin. Erabileren definizio zehatzagoa, baina aldi berean zabalagoa, erabilera posible nagusiak jaso ahal izateko.

1.1.2. Lurzoru ez urbanizagarrian beste erabilera batzuk ahalbidetzeko eta horrela, eremu horretan “bizitza” mantentzeko legea egokitu, aldatu.

1.2. Korredore ekologikoak

1.2.1. Korredore ekologikoen babes legala, beraietan garatzen diren jarduerak arautzeko.

2. Landa-ingurunea

2.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa

- 2.1.1. Erreminta berriak (Internet, IKT...) sustatu, landa-inguruneko jarduera ekonomikoak lagundu eta sustatzeko.
- 2.1.2. Herri-larreak zehaztu, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren mantenua errazteko.
- 2.1.3. Landa-ingurunean garatzen diren jarduerak mugatuz, hau babesteko hartzen diren neurriek, bere erabilera mugatu eta bere mantenua zailtzen dutenez, nolabait bertan behera geratzen dira.
- 2.1.4. Gertutasuneko produktu eta zerbitzuentzako eskualde- eta toki-zirkuituak sortu, baserriei, horrela, alternatiba bat eskaintzen zaie, bere mantenua erraztuz.

2.2. Landa-inguruneko antolamendu fisikoa

- 2.2.1. Baserriaren babesa, landa-ingurunea balioan jartzeko eta mantentzeko

2.3. Orokorra

- 2.3.1. Hiri nagusiak jarduera ekonomikoen garapenerako interes gune gisa mantentzen badira, interes gutxiagoko udalerrietan landa-ingurune fisikoak araudi ezberdina izan dezala, bizitokien ezarpena ahalbidetzeko. Izan ere, lehen sektorea ez da ekonomikoki errentagarria.
- 2.3.2. Kontutan izan behar da, landa-ingurunea, proportzionalki, lurraldearen zatirik handiena okupatzen duen ingurunea dela.
- 2.3.3. Erabakiak hartzerako orduan, landa-ingurunearen babesa gainerako politiken maila berean jarri behar da edo garrantzia berdina eman behar zaio.
- 2.3.4. Landa-munduari babesa, ingurune honen mantenuan duten papera aitortuz. Beharrezko aitortza hau sektorearen formakuntza bultzatuz egin daiteke.

3. Hirigunea.

3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza

- 3.1.1. Zaharkitutako lurzoru industrialen birmoldaketa lehentasunezko garapen-esparruetan, lurzoru berria okupatu beharrean. Horretarako, kudeaketa erreminta berriez hornitzea. beharrezkoa da.
- 3.1.2. Eibarko Mogel auzoan emandako birsorkuntza/birgaikuntza ereduak errepikatu.

3.2. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea

- 3.2.1. Ondoko udalerrietara joan den Eibarko sektore industrialia berreskuratu, gaur egun zerbitzuen sektorean oinarritzen den lan-eskaintza zabalduz.
- 3.2.2. Goiener bezalako enpresen (energia berriztagarriak) ezarpena sustatu babes instituzionalaren bitartez.

3.2.3. Jarduera ekonomikoak lagundu eta sustatzeko erreminta berriak (Internetak, IKTak...) bultzatu, batez jarduera txikiagoak dituzten herri txikietan. Horretarako babes instituzionala beharrezkoa da.

3.3. Hiri hazkundera

3.3.1. Etxebizitza kuantifikazioaren formularen interpretazioak hazkundera oso hedakorak errazten ditu.

3.3.2. Gaur egungo formulak kontrolik gabeko eraikuntza errazten du, eraikuntza berriak gutxi behera %200eko hazkundera ahalbidetuz. Ez da ulertzen zergatik ezartzen den eraiki beharreko gutxienera kopurua.

3.3.3. Populazioaren beherakada bat antzematen da, baina eraikuntza gora doa.

4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak

4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

4.1.1. Bidegorri bitartez Eibar, Elgoibar, Soraluze, Mallabia eta Deba. Azken hau gainera, turismo traktore garrantzitsua da.

4.1.2. Bizikleten erabilera eta alokairua sustatu.

4.2. Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna

4.2.1. Debarrena eta Debagoiena trenetara lotzeko aukera aztertu

4.2.2. Paisaiako portu-azpiegitura hobetu eta berrantolatu, errentagarritasun ekonomikoaren gaiterik interes ekologikoak gailendu daitezkeen.

4.2.3. "Metro motako" aldiriko trenak behar dira, gaur egungo Euskotrenen sistemaren ordez, zaharkituta gertu baita: ez dago zerbitzurik gabe, motela da eta maiztasun baxua dauka. Autobus lotura ere ez da ona, Eibarren kokapena estrategikoa den arren, loturak egokiak dira soilik ibilgailu pribatu erabiltzen bada.

4.3. Eredu logisitkoa

4.3.1. Azpiegitura handiak Eibar/Debarrena eremu funtzionalean zentralizatu, Euskadiko lurraldean duen kokapen estrategikoa (Euskadiko grabitate-zentroa lurralde ikuspegitik).

4.4. Ura

4.4.1. Saneamendu-sarea osatu, Ego eta Deba ibaiak berreskuratu eta leheneratzeko abiapuntu gisa

5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea

5.1. Orokorra

5.1.1. Zuzkidura bizitokiak pertsona nagientzat ere aurreikusi.

5.1.2. Pedagogiatik herritar aktiboak bultzatu eta sustatu.

5.1.3. Hezkuntzaren alorretik, gizartea inklusiboagoa eta adeitsuagoa izateko lan egin behar da. Sentsu honetan, garrantzitsua da herritarrei “guztien ongia” zer den ulertaraztea, beraiei zuzenean eragiten diena bakarrik defenda ez dezaten eta herritargo konprometitua sustatzeko.

5.2. Parte hartzea eta gobernantza

5.2.1. Herritarrei parte hartzeko aukera eman, erabakia loteslea izateko aukerekin.

5.2.2. Parte hartzaileentzako feed back-a falta da administrazioaren aldetik. Honek herritarrei parte hartzeko pizgarriak eta motibazioa kentzen die.